

# Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

## 1. b. erreminta. *Ikasleak.*

### **MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN**

A) Bete ezazue erreminta talde handian adosturiko emaitzekin.

Neska ikaslea

Mutil ikaslea

BAIEZTAPENAK	Emakume-kopurua: ...				Gizon-kopurua: ...			
	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS
1. Gure zentroan elkarrekin bizitzen ikasten dugu, irakasleek ezartzen dituzten arauak betetzen ditugulako.	1	2	3	4	1	2	3	4
2. Ikasle modura zentroan ez dugu inolako erantzukizunik; zentroa da, elkarbizitza txarra izanez gero, irtenbideak proposatu behar dituena.	1	2	3	4	1	2	3	4
3. Zenbait pertsonak molestatu egiten dute eta eskolak ordenan eta lasai ematen uzten. Horixe da arazo bakarra.	1	2	3	4	1	2	3	4
4. Neska eta mutil batzuek nahi duten guztia egiten dute, arauak errespetatu gabe. Giro txarra sortzen dute eta gero gela osoak larrutik ordaindu.	1	2	3	4	1	2	3	4
5. Zentroan ikasleek eta irakasleek hitz egiten dugu elkarbizitza-giro positiboa eta errespetuzkoa nola sortzen den; gaiari buruz eztabaidatzen dugu eta irizpideak konpartitu.	1	2	3	4	1	2	3	4
6. Gure zentroan giro ona dago eta gatazkak ditugunean hitz eginez konpondu egiten ditugu; ez dugu sekula ere ez indarkeriarik erabiltzen.	1	2	3	4	1	2	3	4
7. Zentroko ikasleek uste dugu elkarbizitza-arauak irakasleekin eta familiarekin batera eratu beharko genituzkeela, baina ez digute proposamenik luzatzen ezta horretarako aukerarik ematen ere.	1	2	3	4	1	2	3	4
8. Zentroko pertsona guztiek elkar errespetatu eta zaintzen dugu. Ongi konpontzen gara elkarren artean eta gatazkaren bat daukagunean konpontzen saiatzen gara; horrela elkarbizitza hobea eratzen ikasten dugu.	1	2	3	4	1	2	3	4
9.	1	2	3	4	1	2	3	4
10.	1	2	3	4	1	2	3	4

Beste baieztapenik gainera dezakezue.

B) Galdesorta bukatu eta gero, oinarritzotzat jotzen dituzuen hiru gai aukeratu. Azpimarratu nahi duzun ideia era positiboan eta guztiz argi gera dadin, esaldiak berriatzi.

1<sup>a</sup> .....

2<sup>a</sup> .....

3<sup>a</sup> .....